Maria Josefa

Goikoetxea Iturralde

Astigarraga, 1922-1978

Baserritarra eta sagardogilea. Emakume langilea izan zen: kupeletako sagardoa saldu, baserriko zein etxeko lanak egin eta barazkiak saldu zituen Bretxako merkatuan. Beranduago, jatetxeko sukaldean lan egin zuen. Gainera, Gipuzkoan gidabaimena atera zuen lehen emakumea izan zen.

Baserritarra y sidrera. Fue una mujer trabajadora: vendió sidra de las kupelas, realizó las tareas del caserío y del hogar y vendió hortalizas en el mercado de la Brecha. Posteriormente, comenzó a trabajar en la cocina del restaurante. Además, fue la primera mujer en obtener el permiso de conducción en Gipuzkoa.

*Bizitza-istorio hau bigarren mailako iturri batean oinarrituz idatzi dugu. Maria Josefaren biloba baten senarra den Jon Torrek azaldu digu kontakizuna, familiako bozeramaile gisa, informazioa Maria Josefaren seme-alabengandik zein familiako lagunengandik bildu ostean. Beraz, hitzez hitzeko aipuak Jonenak dira.

*Hemos escrito esta historia de vida basándonos en una fuente secundaria. Nos ha relatado la historia Jon Torre, el marido de una de las nietas de Josefa, después de recolectar los testimonios familiares. Por lo tanto, como portavoz de la familia las citas textuales incluidas son de Jon.

Ikus sintesia bideoan
Ver síntesis en vídeo

1922ko martxoaren 3an jaio zen Astigarragako Petritegi baserrian: «Hemen beti baserrian eta, inguruko jende eta lagunentzat, Joxepa».

Bere gurasoak Jose Joaquin Goikoetxea, baserrian bertan jaioa, eta Josefa Joaquina Iturralde ziren. Ez zuen anai-arrebarik izan. 1940an, biztanleen errolda bat egin zen gerra ostean, baserri bakoitzean zein bizi zen jakiteko: «Eta urte hortan, 18 urte zitun ordun, jartzen zun bera bizi zala bere gurasoekin, bere aitona Agapitorekin eta izeba batekin, Saturnina».

Eskolara joan zela badakite, baina ez dute gehiago oroitzen: **«Baserritan batezere iten zuten txikitatik lana [...] Hemen, zeon alde batetik, baratza, animaliak, sagardua, sagarrondoak, beste fruta-zuhaitzak, zelaiak, artua, denetik... Orduan, lan asko zeon. Gero, zituzten zerriak, oiluak, gauza asko zituzten».**

Garai hartan, baserrien arteko auzolana egoten zen; hau da, baserrien artean elkar laguntzen zuten. Adibidez, zerria hiltzeko edo sagarrak biltzeko elkarri laguntzen zioten. Une horietan, beraien adinekoekin harremantzen ziren: **«Beste baserrita laguntzea jutian elkartze zian hango gazteekin eta umeekin, eta hor ere egingo zituzten beren jolasak, baina hainbeste ez dakigu».**

Baserriaren beheko solairuan hiru edo lau barrika zituzten, ondoan behiak: **«Eta goran bizi zian, tolarea ya kanpuan zeon».** Sagardo salmentari dagokionez, pitarra egiten zuten: **«Etxian edateko, hoi zan sagardoa urakin, oso sagardo gutxi eta ur asko [...] sagardoa saltzeko zalako, diru sarrera oso garrantzitsua zan».** Sagardoa garai bateko txotxean saltzen zen: **«Jartzen zan kanilla bat kupeleko beheko aldian, eta saltzen zan basoka eta txarroka kupela hustu arte, kupela hustutzen zanian besteai jartzen zitzaion kanila».**

Gerra aurreko eta ondorengo urte batzuei buruz, honako hau dio Jonek: **«Normalian kupela saltzen zuna emakumea zan, normalian etxekoa, baino batzutan pasatzen zan etxekua etzeola eta beste nunbaitetik ekartzen zan».** Joxepa ere Petritegin kupelak saltzen egoten zen: **«Pentsatzen degu lehenengo bere amak egingo zuela eta gero berak».** Gerra bukatu eta denbora gutxira, aita hil egin zitzaion: **«Geatu zian bere ama eta bera; sagardotegia, baserria, familia eta dana aurrea ateatzen».**

Familiako lagun batek horrela gogoratzen du Joxepa, 1944an ezkondu aurretik: **«Sagardoa saltzen eoten zala, 22 urtekin eta pentsatzen degu aurretik ere [...] Bea exeita, mahai txiki bat, basuak eta txarruak hor, eta gero eukitzen zun balde bat urakin basoak garbitzeko, eta txanponak jasotzeko ere zerbait».**

Nork bere janaria etxetik ekartzen zuen: **«Ekartzen ez zunak, eskatzen zun, eta amonak iten zun tortilla bat eta bokadilo txiki bat eta kazuelak ebai [...] edaten jarraitzeko».** Gainera, sagardoa egiteko prozesuan ere parte hartzen zuten emakumeek: **«Sagarra biltzen, sagarra jo behar zan tokira eramaten eta gero kupelak betetzen... Leheno mangera eta bonba gutxi zeuden, ordun baldeka betetzen zuten (kupela), eta hori dago dokumentatuta, aspalditik, emakumeen lana izaten zala [...] Lan guzti hoiek ba txikitatik iten zitun».**

Joxepak Pedro Otaño andoaindarrarekin osatu zuen bere familia: **«Amona zan baserrikoa».** Bost seme-alaba eduki zituzten: **«Juan Luis, Joaquin, Arantxa eta gero bixkiak, Lourdes eta Maixus».**

Garai haietan, frankismo ondorengo urteetan, sagardotegietako irudia gizonezkoena izan ohi zen. Kasu honetan ere, Pedroren ardura izan zen. Aldiz, Joxepa, Petritegi Sagardotegiko oinordekoa izan arren, emakume izateagatik ezin izan zen bere baserriko ordezkari izan: **«Emakumea pixkat gelditzen da gehio itzalean [...] Barneko lanetan geratzen da; sukaldea, etxeko lanak, baserriko lanak, seme-alaben zainketa [...] Iten zun emakume papera».**

Nació el 3 de marzo de 1922 en el caserío Petritegi de Astigarraga: **«Joxepa, siempre aquí en el caserío, para la gente y amigos cercanos».**

Su padre era Jose Joaquin Goikoetxea, nacido en el propio caserío, y su madre Josefa Joaquina Iturralde. No tuvo hermanas ni hermanos. En 1940, se realizó un censo de población tras la guerra para saber quién vivía en cada caserío: **«Y ese año, cuando tenía 18 años, figuraba que vivía con sus padres, con su abuelo Agapito y una tía, Saturnina».**

Saben que fue al colegio, pero no recuerdan más: **«En el caserío, sobre todo, trabajaban desde pequeños [...] Aquí, por un lado, tenían huerta, animales, sidra, manzanos, otros árboles frutales, campos, maíz, de todo... Por lo tanto, había mucho trabajo. Además, tenían cerdos, gallinas, tenían muchas cosas».**

En aquella época, existía lo denominado auzolana en los caseríos; es decir, los diferentes caseríos se ayudaban entre ellos. Por ejemplo, se ayudaban entre ellos para la matanza del cerdo o para la recogida de manzana. En esos momentos, se relacionaban con gente de su edad: **«Cuando iban a ayudar a otros caseríos se juntaban con los jóvenes y niños de ahí, y ahí suponemos que jugarían, pero desconocemos esa información».**

En la planta baja del caserío tenían tres o cuatro barricas, junto a las vacas: **«Y ellos vivían encima, el lagar ya estaba fuera».** En cuanto a la venta de la sidra, hacían pitarra (sidra aguada): **«Para beber en casa, eso era sidra con agua, muy poca sidra y mucha agua [...] porque la sidra era para venderla, era un ingreso muy importante».** La sidra se vendía en el txotx de aquel entonces: **«Se ponía una llave en la parte inferior de la kupela, y se vendía por vasos y por jarras hasta vaciarla, cuando se vaciaba la kupela se cambiaba la llave a otra».**

Jon menciona lo siguiente sobre los años previos y algunos posteriores de la guerra: **«Normalmente era una mujer la que vendía la kupela, normalmente de casa, pero a veces, si no había ninguna en casa, se traía de algún otro lado».** Joxepa también solía venderlas en Petritegi: **«Pensamos que previamente lo haría su madre, y luego ella».** Poco después de terminar la guerra, su padre murió: **«Se quedaron su**

madre y ella; lidiando con el caserío, la familia y todo».
Un amigo de la familia recuerda a Joxepa de la siguiente manera, antes de que se casase en 1944: **«Que solía estar vendiendo sidra, a los 22 y probablemente de antes también [...] Ella sentada, una mesa pequeña, los vasos y las jarras ahí, y luego solía tener un balde con agua donde limpiaba los vasos, y también algo para guardar las monedas».**

Cada quien traía su comida de casa: **«El que no traía, pedía, y la amona hacía una tortilla y un bocadillo pequeño, también cazuelas [...] para seguir bebiendo».** Además, las mujeres también participaban en el proceso de hacer sidra: **«Recogiendo manzana, llevando la manzana a donde se machacaba y luego llevando las kupelas, antes había pocas bombas y mangueras por lo que los llenaban a baldes, y esto está documentado como tarea que hacían las mujeres [...] Todos estas tareas las llevaba a cabo desde pequeña».**

Joxepa formó su familia con el andoaindarra Pedro Otaño: **«era la amona la del caserío».** Tuvieron cinco hijas e hijos: **«Juan Luis, Joaquin, Arantxa y luego las gemelas, Lourdes y Maixus».**

En aquella época, en los años posteriores al franquismo, la imagen de las sidrerías era masculina. En este caso, fue responsabilidad de Pedro. Al contrario, Joxepa era la heredera de la Sidrería Petritegi, pero también mujer, y no pudo representar su caserío: **«La mujer quedaba un poco a la sombra [...] Quedaba en las tareas internas; la cocina, tareas domésticas, tareas del caserío, el cuidado de los hijos [...] Era el papel de la mujer».**